

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 6/2019

EUSKO JAURLARITZAKO (...)KO ZUZENDARI (...)AREN AURKA, (...) (...)AK ETA (...) (...)AK JARRITAKO SALAKETEI BURUZKO AKORDIOA, HAIN ZUZEN, HAREN JOKABIDEAREKIN LOTUTA, 2016 ETA 2017 URTEETAN EMANDAKO PRESTAKUNTZA-MODULUENGATIK (...) IRAKASKUNTZEN BLOKE ESPEZIFIKOAN.

1.- Ekainaren 25ean, (...) (...)ak eta (...) (...)ak sinatutako bi idazki sartu ziren Etika Publikorako Batzordearen postontzi elektronikoan (EPB); horietan, Eusko Jaurlaritzako (...) Sailburuordetzako (...)ko zuzendaria den (...)a salatzen dute hasieran adierazitako arrazoiengatik. Eta, hurrengo apartatueta, zehatz-mehatz deskribatzen dira:

2.- Bi idazkiak berdin-berdinak dira, bakoitzaren buruan dagoen pertsonaren identitatean baino ez dira desberdintzen, baita xehetasun bitxi honetan ere: (...) (...)ak aurkeztutako idazkiaren oinean, (...) (...)a agertzen da sinatzaile gisa.

3.- Bi idazkietan hitzez hitz baieztatzen denez, salatua den pertsonak “baimena eman zuen 2016an emateko bloke espezifikoaren prestakuntzako moduluak, eta, 2017an, zati bat, zerbitzu profesional independenteak erabiliz, nahita bete gabe utziz (...) ezarritakoa irakaskuntza horiek emateko titulazioa, espezialitatea edo baldintza egiaztatzeari buruz.”

4.- Horri gehitu diote salatutako egitatea egiaztatu dela “erantzun-txostenaren 4. orrian, salatua den pertsonak egin baitzuen (...)ko zuzendariaren Ebazpenaren kontra jasotako gora jotzeko errekurtsioei erantzuteko (Haren bidez, prozeduraren deia egiten da irakasle espezialisten zerrenda bat osatzeko). Dena dela, idazkiek adierazten dutenez, jakinaren gainean zegoen “aipatutako (...)ko Ikuskariak, (...) (...)ak”.

5.- Salatzaileen idazkiek argudiatzen dutenez, hauetan ezarritakoarekin kontraesanean egotetik dator salatutako jarduketaren irregulartasun juridikoa:

- (...) (...)en lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko den (...) Dekretuaren 17. artikulua, zeinak ezartzen baitu (...)an egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaliko direla hura arautzen duen arautegiak ezarritako baldintzak betetzen dituzten hautagaien zerrenden bidez.

- (...)en ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautzeko den (...) Dekretuaren 8. artikulua, zeinak indarrean dagoen legeriaren arabera ezartzen baitu (...)ren aurrekontuko

baliabideak ezin direla erabili Euskal Administrazio Publikoak bete beharreko zerbitzu publikoak eta betebeharrak estaltzeko.

- (...) Dekretuaren 17.3 artikulua, (...)en langile-gasturik egiteko ezintasunari buruz.

6.- Idazkiek diotenez, geroago “prozeduraren deia egin zen irakasle espezialisten zerrenda bat osatzeko, (...) bloke espezifikoaren moduluak emateko, (...) Saileko (...)ko zuzendariaren Ebazpenaren bidez”; eta hau nabarmendu da: “zikloaren irakaskuntzak 2016an eman zituen pertsonetako batek deialdi honetan hartu zuen parte; horretarako, lortutako irakaskuntza-esperientzia egiaztatu zuen meritu gisa profesional independente moduan emandako irakaskuntza-zerbitzuen bidez.

7.- Salatzaileek alegatzen dute “bai zuzendariak bai ikuskariak adierazitako kontrol-faltak eta, indarrean dauden xedapenak betetzen direla zaintzeko betebeharra ez-betetzeak ondorio oso larriak ekarri ahalko dizkietela irakaskuntza horiek jaso zituzten ikasleei; izan ere, lortutako ziurtagiriak deusezak deklaratu daitezke”.

8.- Horren ondorioz, idazkiek mantentzen dute salatua den pertsonak bere ekintzen bidez “ez duela bete” EPB, “ez baititu hauek erakutsi”:

- Inpartzialtasuna eta objektibotasuna, erabakiak hartzeko prozesuan.

- Erantzukizuna, haien eskumenen esparruko berezko erabakiak, ekintzak eta ez-egiteak kudeatzeagatik.

- Gardentasuna eta gobernatze irekia, ez baitie informazio fidagarria eta osoa eman herritarrei, hartu dituen erabakiei buruzko arrazoiez, azterlanez, ikerketez eta prozedurez.

- Onestasuna eta axolagabetasun subjektiboa, bere erabakiak ez baitira hartu interes publikoaren eta herritarren onurarako, interes partikularrek eraginda baitaude.

9.- Era berean, uste du (...) Zuzendaritzako titularrak “-integritate-, inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioen aurkako jokabideak erakutsi dituela”, izan ere:

- Zenbait pertsonari faboritismo-praktikak edo jarduketak onartu dizkie.

- Enplegatu publikoek bere gidalerroak edo erabakiak erabiltzea onartu du; baina, ez interes publikoari erantzuteko, hirugarren pertsonak saritzeko baizik.

- Bere erabakiak, ebazpenak eta ekintza guztiak ez dira egon informazio fidagarrian oinarrituta (txostenak, azterlanak, proiektuak edo irizpenak), ezta ebatzi beharreko gaiari lotuta eskura dauden datuen azterketa objektiboetan ere ez. Ez ditu onartu teknikarien aholkuak, modu objektiboan hartu ahal izateko eta arazoak egoki ebazteko.

10.- Hori guztia aintzat hartuta, testuen formulatze bera duten idazkiek EPB honi eskatzen diote “beharrezko ekintzak eta neurriak har ditzala, baita (...) Sailburuordetzako (...)ko zuzendaria kargutik kentzea edo karguaren kautelazko etetea ere”.

11.- Kontuan hartuta oinarrizko arau juridikoa, zeinak pertsona orori aitortzen dion defentsarako beharrezkoak diren alegazioak egiteko eskubidea, haren kontra aurkeztutako salaketan aurrean, salatua izan den pertsonari bidali zitzaizkion aipatutako idazkiak, eskubideaz baliatzeko 15 eguneko epean.

12.- 2019ko uztailaren 12an, EPB-ren idazkaritzari zuzendutako idazki labur bat erregistratu zuen salatua izan den pertsonak eta horri gehitu zizkion 11 dokumentuz osatutako eranskina.

13.- Salatua den pertsonak bere aldeko alegazioan dio (...)ko zuzendariaren izendapena Dekretuaren bidez izan zela (2017ko (...)aren (...)ko EHAA) eta kronologikoki izendapena izan aurretikoak direla salatutako egitateak (2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteei dagozkie, eta (...)ko zuzendariaren Ebazpena ere bai); horrek esan nahi du ez duela egiteko ardurarik.

14.- Era berean, (...)ko zuzendariak dio –izendatu zenetik hilabete bat baino apur bat lehenago– sinatu zuen txostenak, (...)ko zuzendariaren Ebazpenaren kontra jarritako gora jotzeko errekurtsioari buruzko informazioa emateko, “nahitaez” oinarritu zela zuzendaritza horretako teknikariek finkatutako txosten eta irizpide teknikoetan, kontuan hartuta ez zeukala egotzen dizkieten egitateen berri.

15.- Aurrekoari gaineratzen dio salatzailleek gora jotzeko errekurtsioak ere aurkeztu zituztela, aurreko puntuan aipatutako gora jotzeko errekurtsioaz gainera, batetik, (...)ko zuzendariaren Ebazpenaren kontra (haren bidez argitaratu zen aipatutako deialdiaren onartuen eta baztertutako behin-behineko zerrenda) eta, bestetik, zuzendari horren (...)ko Ebazpenaren kontra (Aipatutako deialdiaren onartuen eta baztertutako behin betiko zerrenda argitaratzeko zena); horiek guztiak ezetsi zituen (...)en Sailburuordetzak urte bereko Ebazpenen bidez.

16.- Hortaz, EPBri eskatzen dio ez onartzeko interesdunen salaketak, biek baitakite “salaketa horren ibilbidea oso laburra izango dela”; izan ere, (...) Sailak “hirutan azaldu eta argudiatu die ez dutela arrazoirik”

17.- 2017ko uztailaren 7an (ordua: 10:55), posta elektronikoa bidali zion interesa duen batek EPBren Lehendakariari eta, horretan adierazten duenez, “posta elektronikoz zuei salaketa bidali ondoren, horren erantzunik jaso gabe eta gardentasun-faltatzat hartuta, aipatutako posta elektronikoa birbidaltzen dizuet”. Egun horretan bertan (ordua: 12:38) beste posta elektronikoa bat bidali zuen eta haxe baieztatzen du: “gaiaren garrantzia ikusita, dokumentazio hau bidaltzen dizut, gardentasun osoarekin ikerketa bati hasiera emateko eta egokiak diren neurriak hartzeko”. Posta elektronikoa bi dokumentu ditu erantsita eta, horietan, (...) (...)ak ikuskaria

den (...) (...)aren kontra (...) Saileko (...)ko zuzendariari eta, (...)en Sailburuordetzari aurkeztutako beste salaketa batzuk jasotzen dira”.

18.- Horiek horrela, EPB honek erabaki hau hartu du aho batez, EJKren 16.4 artikuluko bigarren apartatuak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta:

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.- Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea eta, gaur egun, 2016ko azaroaren 22an onartutako Testu Bateratuan jasotakoa (EJK) sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea izan zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko erronkari erantzutea ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzea, haren eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegintzea.

2.- EJK-k bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Eta funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta axolagabekeria subjektiboa; errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu. Hain zuzen, EPB honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikoek eta parekatuek zein bere xedapenak eraginkortasunez betetzeko interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei erantzuteko.

3.- Horretarako, EJKren 16.3.1. e) apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPBren eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Akordio honen sarreran deskribatutako aurrekariak arretaz irakurri ondoren, proposatzen den lehenengo gaiak lotzen ditu, batetik, salatua den kargu publikoaren ardura zuzena eta pertsonala eta, bestetik, (...) Saileko (...) zuzendari izendatu baino lehen gertatu ziren salatutako egitateen zati bat gauzatzea.

2.- Salatzailiek zuzenean eta ñabardurarik gabe aurpegiatzen diote onartzea gatazkaren sorburu diren “prestakuntzako moduluak 2016an ematea zerbitzu profesional independenteak erabiliz”, kontuan hartu gabe egitate horietan parte hartu izana garrantzirik gabekoa gerta zitekeela, baita baliogabea ere, gauzatu eta gero izendatu baitzuten, alde batera utzita EJKn jasotako balio eta printzipioen kontrakoak izan ala ez; hori geroago adieraziko dugu.

3.- Beste alde batetik, salatua den pertsonak bere alegazio nagusia zentratzen du gorabehera horretan; horretarako, EHAAREN kopia bat gehitu du baieztapenaren dokumentu-euskarri gisa, non argitaratu baitzen Dekretua, (...)aren zuzendaria izendatzeko zena. Dioen bezala, (...)an hasi zen zuzendaritza horren titular gisa, eta, hortaz, horrek ez du zerikusirik zuzendaritza-unitate horretatik egin zenarekin karguaz jabetu aurretik.

4.- Ez dirudi zalantzarria denik, hasiera batean, salatutako egitateen gune nagusiaren ondorengo izendapenak, objektiboki, salbuesten duela salatua izan den kargu publikoa haien gaineko edozein ardura edukitzetik. Ezin zaio ezer aurpegiatu parte-hartzerik ez zuen egitateekin lotuta.

5.- Bakar-bakarrik, geroko jokabidean azter daiteke ea jakinaren gaineko eta nahitaezko jokabide ilegala bete ahal izango zuen, (...)ko zuzendariaren ebazpenen kontra aurkeztutako gora jotzeko errekursoei buruzko informazioa ematean, izendatu eta gero.

5.- Idazkian, salatua den pertsonak alegatzen du sinatu zuela (...)ko zuzendariaren Ebazpenaren kontra jarritako gora jotzeko errekursoei erantzuteko egin zuen txostena, eta horretarako bere zuzendaritzaren teknikariek ezarritako txosten eta irizpide teknikoetan oinarritu behar izan zela. Izendapen berriak galarazten zion autonomia handiagoz jokatzeko. Hasieran batean, arrazoizko eta aintzat hartzeko moduko alegazioa dirudi.

6.- Bestalde, EPBk askotan adierazi badu ere kargu publikoen jakinaren gaineko eta nahitaezko jokabide ilegala EJKren balio eta printzipioen kontrakoa dela, era berean, hauxe mantendu du: “EPBri ez dagokio administrazio-jardunaren legezketasunari buruzko epaiak ematea” eta, auzitan den jarduketa ezin bada oinarritu “indarrean dagoen ordenamendu juridikoa defendatzeko moduko interpretazioan”, euskal autonomia-sektore publikoaren arduradunentzat ezarritako estandar etikoei kontra egiten diela nabaritu beharko dugu (ikus, besteak beste, 8/2014 Akordioa).

7.- Alegazioetan, salatua den kargu publikoak adierazten du, kasu honetan, salatzaileek auzitan jarritako administrazio-jardunaren legezketasuna hirutan ere defendatu zituela (...) Sailak, (...)ko zuzendariaren Ebazpenen kontra jarritako gora jotzeko errekurtsoei arrazoitutako eta legez eragindako erantzuna emateko. Bat etor daiteke edo ez aipatutako arrazoiketaren egokitasunarekin eta kaudimen juridikoarekin; baina, lehen esan bezala, EPBren egitekoa ez da legezketasun-irritziak ematea; hala ere, esan behar da argudioak hutsalak edo guztiz defendaezinak direla. Eta kasu horretan bakarrik ikus genezake kontra egiten zaiola EJKri.

8.- 2019ko uztailaren 17ko mezu elektronikoetan, EPBri jakinarazten dio interesdun batek bi salaketa aurkeztu zituela (...) Saileko (...)ko zuzendariaren eta, (...)en Sailburuordetzaren aurrean, (...)ko Ikuskaria den (...)aren aurka, akordio honetan aztertzeko xedea duten zuzenean lotutako egitateengatik.

9.- Aurreko akordioetan adierazitakoaren arabera (ikus, besteak beste, 4/2015 eta 5/2019 akordioak), EHAAn argitaratzen denetik aurrera sortzen ditu ondorioak Etika eta Jokabide Kodeak —2013ko ekainaren 3an argitaratu zen, hain zuzen—, eta kodearen 2. apartatuan zehaztutako kargu publikoentzat soilik du indar loteslea, kargu publiko horiek legez ezarritako prozeduraren arabera izendatu eta Kodearekiko banakako atxikipena formalizatu ondoren. Irizpide hori aplikatzearen ondorioz, ez gai deklaratu du bere burua iritzia emateko kargu publikorik betetzen ez duten funtzionarioen kontrako salaketei buruz (1/2017 akordioa). Are gehiago, EJKren 2.2. apartatuan ezarritakoaren apelazioa aurkeztu zuen aurtengo memorian, Eusko Jaurlaritzari proposatzeko enplegatu publikoentzat etika kodeak egitea, zeinak ekainaren 26ko 1/2014 Legeak eta kargu publikoei aplikagarri zaien kodeak finkatzen dituzten balio eta printzipio berdinetan inspiratuko diren.

10.- Kasu honetan, argudioak egokitzen jotzen dira, enplegatu publikoari baitagozkio (...) -esparruko ikuskaritzako lanak EAEn, zeina EJKaren aplikazio-eremu subjektiboari mugatzen baita.

11.- Hala ere, sailari dagozkio izapidetzea legez ezarritako prozedurak, salatutako egitateak argitzeko asmoz; izan ere, interesdun batek bi salaketa aurkeztu ditu (...) Saileko (...)ko zuzendariaren eta, (...)en Sailburuordetzaren aurrean, Ikuskaria den (...)ren aurka.

Hori guztia aintzat hartuta, EPB honek hau erabaki du, aho batez.

ERABAKIA:

1.- (...) Saileko (...) zuzendaria, salatua izan den kargu publikoa, ez da zuzendaritza horren titular izendatu aurretik gertatutako egitateen arduraduna, alde batera utzita egitate horiek EJKaren preskripzioak hautsi ahal duten ala ez.



2.- Ez dugu ikusten jakinaren gaineko eta nahitaezko jokabide ilegalik salatua izan den kargu publikoaren izenpetu ondorengo jokabidean eta, hortaz, ezta autonomia-sektore publikoaren kargu publikoen jarduketak arautzen dituzten jarraibideen kontrakorik ere.

3.- Ez dagokigu erabakitzea Ikuskaria den (...) (...)aren jokabideari buruz, enplegatu publikoa baita eta EJKaren aplikazio-eremu subjektibotik kanpo baitago.

4.- (...) Sailari dagokio legezko prozedurak izapidetzea interesdun batek (...)ko Ikuskaria den (...) (...)aren kontra jarritako salaketak argitzeko.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 22a